



3. AKTA

2004ko martxoaren 30ean ospatutako **TOKIKO GOBERNUAREN JUNTA**.

LEKUA: Pasaiako Hirian eta Pasai San Pedroko Udal Aretoa.

DATA: Bi mila eta lauko martxoak hogeita hamar.

ETORRITAKOAK:

Lore Suárez Linazasoro a.
Lucía Querido Noceti a.
Jesús M^a García Garde j.
Xabier Pombo González j.

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño Andre Alkatea

Lehenengo deialdian bildu dira Izaskun Gómez Xermeño Andre Alkatearen presidentzian goian aipatu zinegotziak Joseba Belaustegi Cuesta Behin-behineko Idazkari jauna bertan delarik, Tokiko Gobernuaren Juntaren batzarraldia egiteko horretarako egin deialdia dela eta.

Lehendakaritzak konstataturik Tokiko Gobernuaren Junta legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela, batzarraldia irekitzat eman du 10:00etan, ondoren Gaizerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekinez.

1.- Aurreko batzarraldiko akta, 2.a, 2004ko martxoaren 1ekoa, irakurri eta ontzat ematea.

Bertakoen kontsiderazioan jarririk atalburuan aipatzen den akta, Tokiko Gobernuaren Juntak erabaki du ontzat ematea bere osoan eta dagokion Akta-liburuan transkribatzea.

2.- 3. zka. daraman kontu-fakturen erlazioa.

Tokiko Gobernuaren Juntak erabaki du ontzat ematea 3. zka. daraman kontu-fakturen erlazioa, EHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA LAU EURO ETA HOGEITA SEI ZENTIMOKOA (195.364,26 eurokoa).

3.- “Azkuene, Ulia eta Errenteria-Trintxerpe eremua urbanizatzea” obraren 9. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 9 (Obrak).

Obra: “Azkuene, Ulia eta Errenteria-Trintxerpe eremua urbanizatzea”.



Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazabal Azkoitia j. (Udal Arkitektoa) eta Jose M^a Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BERROGEITA HAMALAU MILA BEDERATZIEUN ETA BERROGEITA HAMALAU EURO ETA HIRUROGEITA HAMABI ZENTIMO (54.954,72).

Indarrengo udal aurrekontuko D-370/03 Disposamenduaren kargura.

4.- Ikastetxeei subentzia. 2003ko 2. semestrea.

Kultura eta Hezkuntzako Zinegotzi Delegatuak 2004ko otsailaren 12an egindako proposamenez, Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Ondoren aipatzen diren Ikastetxeei 2003ko bigarren semestreko subentzia banatzea onzat ematea:

- KARMENGO AMA H.I3.181,13 euro
- KARMENGO AMA H.I.
GURASO ELKARTEA497,02 euro
- PASAIA-LEZO LIZEOA4.709,48 euro

GUZTIRA..... 8.387,63 euro

BIGARREN.- Interesatuei aditzera ematea legezkiekeen errekursoak.

Hau guztia indarrengo udal aurrekontuko 05-481-422-00-01 partidaren eta A-277/04 Baimenduarn kargura.

5.- Ondare erantzukizunaren gaineko hainbat erreklamazioa.

A) M^a Soledad Durán Andrés andreak egindako ondare-erreklamazioa.

Ikusirik MARIA SOLEDAD DURÁN ANDRÉS andreak formulatu erreklamazioa 2003ko UZTAILAREN 25EAN izandako kalteak direla eta, Euskadi etorbidea kalearen 13ko espaloian zulo batean hanka sartzeagatik.



Ikusirik 2.003ko azaroaren 4ean jakinarazi zitzaiola idatziz non eskatzen zaion beharrezko dokumentazioa ondare erantzukizunaren erreklamazioa tramitatzeke.

Ikusirik igaro dela LRJAPAC-ko 92. artikulua agintzen duen hiru hilabeteko epea eta ez duela aurkeztu aipatu dokumentazioa, Tokiko Gobernuaren Juntak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Espedientea iraungitzat ematea, eta ondorioz aktuzioak artxibatzea.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiekeen errekurtsioekin.

B) Kontxi Chair Falqué andreak egindako ondare erreklamazioa.

Ikusirik KONTXI CHAIR FALQUÉ andreak egin erreklamazioa AIMAR ZUBIA CHAIR bere semeak 2003ko urriaren 18an erorikoa izan duelako Pasai Antxoko Axular plazan haur-jostailu baten oinarriarekin estropozo eginda.

Ikusirik 2003ko azaroaren 24ean idatziz jakinarazi zitzaiola beharrezko dokumentazioa aurkeztu behar zuela ondare erantzukizunaren erreklamazioa tramitatzeke.

Ikusirik Zerbitzuen Sailak luzatu txostena, Tokiko Gobernuaren Juntak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Berak salatu duen arazoa konpondu dela jakinaraztea.

BIGARREN.- Ez duela ondoriorik izan eta beraz ez dagokiola kalte-ordainik.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiekeen errekurtsioekin.

C) Mikel Rodriguez Iglesia jaunak egin erreklamazioa.

Ikusirik MIKEL RODRIGUEZ IGLESIA jaunak egin erreklamazioa, 2003ko azaroaren 27an HU-0483-G ibilgailuan izandako kalteak direla eta, gaizki aparkatuta zegoela eta garabiarekin ibilgailua erretiratzerakoan.

Kontuan izanik Udaltzainek adierazi dutela ibilgailua garabiarekin kargatzerakoan eurek ez zutela kalterik ikusi.



Kontuan izanik nolana ere, TRLCAP-ko 97,1 artikularen arabera, udalak kontrataturiko zerbitzuaren operazioen ondorioak ordaintzeko obligazioa kontratistarena dela, kasu honetan Grúas Auto-rena, Tokiko Gobernuaren Juntak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Erreklamazioa gaitzestea kalteen eta udal zerbitzuaren arteko loturarik ez dagoelako.

BIGARREN.- Nolan ere, Grúas Auto kontratistarengana jo beharko du.

D) Frantzisko Jose Cardiel Cortés jaunaren ondare erreklamazioa.

Ikusirik FRANTZISKO JOSÉ CARDIEL CORTÉS jaunak formulatu erreklamazioa, 2003ko abenduaren 3an 2454-CJB ibilgailuan izandako kalteak direla eta, gaizki aparkatuta zegoela eta garabiak erretiratzean.

Udaltzainek deklaratu dutenez ez zuten ikusi garabiak autoa kargatzerakoan kalterik egin zitzaionik.

Kontuan izanik nolana ere, TRLCAP-ko 97,1 artikularen arabera, udalak kontrataturiko zerbitzuaren operazioen ondorioak ordaintzeko obligazioa kontratistarena dela, kasu honetan Grúas Auto-rena, Tokiko Gobernuaren Junta bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Erreklamazioa gaitzestea kalteen eta udal zerbitzuaren arteko loturarik ez dagoelako.

BIGARREN.- Nolan ere, Grúas Auto kontratistarengana jo beharko du.

E) Herminia Gómez Cámara andreak Biharko Aseguradora-ren izenean egindako ondare erreklamazioa.

Ikusirik BIHARKO ASEGURADORAK JULIO SÁNCHEZ CORA bere bezero jaunaren izenean aurkeztutako erreklamazioa Udalarari 422,24 euro eskatuz 2003ko maiatzaren 1ean Pasai Donibanen San Roke kaleko 8an, behean ezkerrean dagoen bere etxebizitzako garajearen izandako kalteak direla



eta, hartune orokorreko balbula bati ihes egindako urak kausatuta, eta ikusirik Zerbitzuen Sailak luzatutako txostena, Tokiko Gobernuaren Juntak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Erreklamazioa gaitzestea Zerbitzuen, Sareen eta Mantenimenduaren Buruak egin txostenaren eta Edateko Uraren Udal Zerbitzuaren Arautegi Erregulatzailerako 51. artikulua arabera, non esaten den uraren hartunea finkaren elementu pribatiboa dela.

BIGARREN.- Zerbitzuen, Sareen eta Mantenimenduaren Sailari agintzea San Roke kaleko 8ko Jabekidetzari erreklamatzeko Udalarari ez dagokion instalazioa egiten eman dituen gastuen kalteordaina.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsioak seinatuz.

F) Adelina Carmona León andreak egindako ondare erreklamazioa.

Ikusirik ADELINA CARMONA LEON andreak aurkeztu erreklamazioa udalari 117.549,66 euro eskatuz Azkuene-Ulia-Errenteria kaleak urbanizatzeko obrak egitean bere establezimenduan eragindako kalteak direla eta, Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Aipatu erreklamazioa gaitzestea inola ere ez delako demostratu loturarik udal-zerbitzuaren funtzionamendua eta erreklamatzaileraren ustezko kalteen artean.

BIGARREN.- Gainera ez dira kalteak identifikatzen ezta aldika bana frogatu ere udal funtzionamenduarekiko lotura, eskaeran Udal honekin zerikusirik ez duten hainbat zirkunstantzia nahasiz, hala nola: lehendik zegoen auzi zibil bat eta laguntza publiko baten galera eskatzaileak berak dokumentu bat ez aurkezteagatik.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsioekin.

G) Luis Jesus Barbarin Jurio jaunak egin ondare erreklamazioa.

Ikusirik LUIS JESUS BARBARIN JURIO jaunak aurkeztu erreklamazioa 2003ko abenduaren 19an Gobernu Batzordeari non eskatzen ziren 331,52 euro zakar-ontzi municipal batek 2002ko abenduaren 16an SS-2625-AF matrikula duen autoan eragindako kalteak direla eta Daniel de Castela kalearen 9an adieraziz fakturaren inporte guztia 444,99 eurokoa dela, Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez,



E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Erreklamazioa gaitzestea eskaturiko kantitatea 331,51 eurokoa zelako.

BIGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

H) Miren Etxebeste Goiburu andreak egin ondare erreklamazioa.

Ikusirik MIREN ETXEBESTE GOIBURU andreak egin erreklamazioa Eskalantegi kalean 2003ko uztailaren 6an jasandako kalteak direla eta, pertsona bat karrozatik erortzean, aldi berean honen dekoratuaren parte bat eraman zuelarik, begian kolpea hartuz.

Ikusirik 2003ko azaroaren 3an idatziz jakinarazi zitzaiola non eskatzen zitzaion beharrezko dokumentazioa ondare erantzukizunaren erreklamazioa tramitatzeko.

Ikusirik LRJAPAC-eko 92. artikulua araberako hiru hilabeteko epea igarota aipatu dokumentazioa ez duelarik aurkeztu, Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Espedientea iraungitza deklaratzeko, eta ondorioz, aktuazioak artxibatzea.

BIGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

I) Soraya Caballero Prieto andreak egin ondare erreklamazioa.

Ikusirik SORAYA CABALLERO PRIETO andreak egin erreklamazioa, zeinek adierazten baitu 2003ko irailaren 19an Arrandegi kaleko 10aren parean erori egin zela oinezkoak igarotzeko pasabide baten aurrean dagoen eraikin batean obrak zirela eta.

Ikusirik 2003ko urriaren 14ean idatziz jakinarazi zitzaiola beharrezko dokumentazioa aurkezteko ondare erreklamazioa tramitatzeko.

Ikusirik LRJAPAC-eko 92. artikulua araberako hiru hilabeteko epea igarota aipatu dokumentazioa ez duelarik aurkeztu, Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U



LEHENENGO.- Espedientea iraungitzat deklaratzera, eta ondorioz, aktuazioak artxibatzea.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

J) Manuel Gonda Olivera jaunak egin ondare erreklamazioa.

MANUEL GONDA OLIVERA jaunak erreklamazioa egin zuen SS-9649-AM turismoan eragindako kalteak direla eta dirudienez estolderia batekin kolpatzean Arrandegi kaleko 1aren parean, 2003ko abenduaren 11n, obrak egiten ari ziren inguru batean, eta ikusirik Udaltzaingoak eta Hirigintzako Sailak luzatu txostenak, non adierazten den A.I.U. 2.05.2 eremuan etxebizitzak, lokalak eta garajeak eraikitzeko obrak direla eta baita Arrandegi kalea urbanizatzeko obrak ere, obra hauen promotora Ortuibar, S.A. enpresa izanik, Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Manuel Gonda Olivera jaunak formulatu erreklamazioa gaitzestea jakinaraziz kasu balitz Ortuibar, S.A. enpresaren aurka burutu behar dela erreklamazioa, Bergarako Ibargarai kalea, 18, behea helbidean.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

K) Saturnina Sinovas Fernández andreak egin ondare erreklamazioa.

Ikusirik Saturnina Sinovas Fernández andreak formulatu erreklamazioa 2003ko ekainaren 25ean Udalari 4.200,-- euro eskatuz Euskadi etorbidean Bilbao Bizkaia bankuaren parean espaloian erorita bi baldosa falta zirelako eta halaber ikusirik Udaltzaingoak eta Zerbitzuen Sailak luzatu txostenak eta baita ere Cía de Seguros ALLIANZ konpainiaren idazkia, zeinak erreklamatzailari 3.000,-- euroko kantitatea eskaintzen baitio eta ikusirik Sinovas andrearen idazkia non adierazten baitu ados datorrela eskaintako kantitatearekin, Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Saturnina Sinovas Fernández andreak aurkeztu erreklamazioa ontzat eman eta kalteordaina 3.000,-- eurotan ezartzea.

BIGARREN.- Udalak 901,52 euro ordainduko ditu (udal aseguruaren frankizia) eta gainerakoa, 2.098,48 euro Allianz aseguruak ordainduko du.



HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari jakinaraztea legozkiokeen errekurtsioekin.

L) M^a Delia Lamas Seco andreak egindako ondare erreklamazioa.

Erreposizio Errekurtsoak ez du atakatzen, zuzenean behintzat, erreklamazioa gaitzesteko errekurritutako udal akordioaren kontsiderazioak, nolabait 2. erreklamazioa bailitzan, frogaproposamen berri batekin eta eskaturiko kalteordaina aldatuz.

Kontuan izanik Erreposizio Errekurtsoak helburutzat errekurrituriko ebazpenaren funtsak eta kontsiderazioak atakatzea izan behar duela eta

Gertaturik Udalak kontuan izandakoek indarrean jarraitzen dutela erreklamazioa gaitzesteko orduan, Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho bñatez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- 2003ko abenduaren 19an luzatutako bere ebazpenaren aurka tartekaturiko Erreposizio Errekurtsoa gaitzestea zeinen bidez gaitzesten baitzen Maria Delia Lamas Seco andreak aurkeztu erreklamazioa horretarako kontuan izandako arrazoiek indarrean jarraitzen duelako, aipatu akordioa bere osoan berresten delarik.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

M) Jon Zabaleta Mezkiriz jaunak egin ondare erreklamazioa.

Ikusirik SEGUROS LAGUNARO, S.A.-k JON ZABALETA MEZKIRIZ jaunaren izenean egindako erreklamazioa Euskadi etorbidean Trintxerpeko inauterien desfilean parte hartu behar zuen karroza batek SS-1629-BG matrikula duen autoari egindako kalteak direla eta, 261,52 euroko kantitatez, Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- SEGUROS LAGUNARO, S.A.-ri 261,52 euro abonatzea Lan Kide Aurrezkiko 3035-0083-27-083.070607-7 zka. duen k/kean.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

6.- Obra lizentzia: Kanpitxo kalea, 11.

Ikusirik Pasaia Udalerrri honetako Kanpitxu kaleko 11.zenbakiko jabekideen eskaera aipatu eraikinean gasaren instalazio orokorra egiteko, Tokiko Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez zera

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Pasaia Udalerrri honetako Kanpitxu 11. zenbakiko jabekideei eskatu duten lizentzia ematea hurrengo baldintzekin:

- a) Aipatutako instalazioak behin betiko martxan jartzeko enpresa erantzuleak egin beharko dio azken azterketa eta ikuskapena, eta nahitaez eduki beharko du Industria Ministerioaren Ordezkaritzak agintzen duena.
- b) Eraikineko jabekideek ezingo dituzte jarri galdarak, metagailuak, berogailuak, deposituak ea bezalako aparatuak balkoietan, terrazetan edota kale aldera ematen duten fatxadetan eta jendeak ikusteko moduan.
- c) Aparatuak balkoietan jartzekotan, proiektu tekniko bat egin beharko da aparatuek okupatzen duten espazioa ixteko eta uniformitate, homogeneitate eta batasunaren irizpideak mantzentzeko eta indarrean den udal araudiaren arabera onarpena eman diezaion proposamena egin beharko zaio.
- d) Pasaia Arau Subsidiarioen 062 artikulua araber, eraikita dauden eraikinetan gasak eta kea teiltura bideratzeko hodiak barrutik jartzea ezinezkoa denean eta igogailuak jartzea ezinezko adenean, udalak baimendu ahal izango du instalazio hauek patio horien fatxadei erantsita jartzea, estalkiraino. Horretarako, teknikari eskudun batek sinatutako proiektu teknikoa aurkeztu behar dute, ikus-onetsi ofiziala duena. Ez da baimentzen sukaldeko aparatuen eta/edo berogailuaren gasak eta kea zuzenean kanporatzea.
- e) Pasaia Arau Subsidiarioen 072 artikuluan adierazten da etxebizitzetan NTE-ISH eta NTE-ISV araudiak bete behar direla; eta horien arabera, galdarako gasak eta keak estalkira kanporatuko dira, horretarako espresuki jarritako hodi baten bidez.
- f) Aurreko puntuan aipatzen dena ezinezkoa izanez gero, eta hau teknikoki frogatu beharko litzateke, uztailaren 12ko 2000 (BOPV 19/09/00 Agindua bete beharko da eta etxebizitzetan gasifikazio eta berogailuen instalazioei buruz esaten dena.

- g) Gas Pasaiaren baimena.
- h) Pasaiako AASSen 175 artikulua araber, finka bakoitzaren hargune nagusitik kontsumitzeko lekuetaraino gorako kanalizazio bertikalak barru aldeko patioetatik joango dira beti edota kondukzio-kaxatik (aireztatua eta sarbideduna); kanpoaldeko fatxadatik oso disimulatua geratzen bada bakarrik izango da onartua (esekitokien barrutik, sareta barrutik kaxa aireztatutik ea. edo fatxadaren konposizio arkitektonikoaren barruan ongi egokituko den soluzioren baten bidez).
- i) Presioaren kaxa erregulatuak begi-inpaktu gutxien izango duten horma-ataletan jarriko dira.
- j) Aukeratutako fatxadan ahalik eta modurik ezkutuen erabiliko da.

BIGARREN.- Interesdunari akordio hau jakinaraztea eta honen aurkako errekurtsoen berri ematea.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Udal Kontuhartzaitzari ematea dagozkion tasak eta zergak likidatzeko.

Lizentzia honetako lanen aurrekontua 3.440 eurokoa da eta eraikinaren elementu komunei dagokie.

7.- Obra lizentzia: Espinosa de los Monteros, 7.zk.ko jabekideen komunitatea.

Ikusirik ALBERTO MANGAS BENITO jaunak Pasaia udalerrri honetako Espinosa de los Monteros kaleko 7.zk.ko Jabekideen izenean egin duen eskaera aipatu eraikinean gasaren instalazio orokorra egiteko, Tokiko Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez zera

E R A B A K I T Z E N D U

LEHENENGO.- ALBERTO MANGAS BENITO jaunari, Pasaia udalerrri honetako Espinosa de los Monteros kaleko 7.zk.ko Jabekideen izenean, eskatu duen lizentzia ematea hurrengo baldintzekin:

- a) Aipatutako instalazioak behin betiko martxan jartzeko enpresa erantzuleak egin beharko dio azken azterketa eta ikuskapena, eta nahitaez eduki beharko du Industria Ministerioaren Ordezkaritzak agintzen duena.
- b) Eraikineko jabekideek ezingo dituzte jarri galdarak, metagailuak, berogailuak, deposituak ea bezalako aparatuak balkoietan, terrazetan edota kale aldera ematen duten fatxadetan eta jendeak ikusteko moduan.
- c) Aparatuak balkoietan jartzekotan, proiektu tekniko bat egin beharko da aparatuek okupatzen duten espazioa ixteko eta uniformitate, homogeneitate eta batasunaren irizpideak mantzentzeko eta indarrean den udal araudiaren arabera onarpena eman diezaion proposamena egin beharko zaio.

- d) Pasaiako Arau Subsidiarioen 062 artikularen arabera, eraikita dauden eraikinetan gasak eta kea teiltura bideratzeko hodiak barrutik jartzea ezinezkoa denean eta igogailuak jartzea ezinezko adenean, udalak baimendu ahal izango du instalazio hauek patio horien fatxadei erantsita jartzea, estalkiraino. Horretarako, teknikari eskudun batek sinatutako proiektu teknikoa aurkeztu behar dute, ikus-onetsi ofiziala duena. Ez da baimentzen sukaldeko aparatuen eta/edo berogailuaren gasak eta kea zuzenean kanporatzea.
- e) Pasaiako AASSen 072 artikuluan adierazten da etxebizitzetan NTE-ISH eta NTE-ISV araudiak bete behar direla; eta horien arabera, galdarako gasak eta keak estalkira kanporatuko dira, horretarako espresuki jarritako hodi baten bidez.
- f) Aurreko puntuan aipatzen dena ezinezkoa izanez gero, eta hau teknikoki frogatu beharko litzateke, uztailaren 12ko 2000 (BOPV 19/09/00 Agindua bete beharko da eta etxebizitzetan gasifikazio eta berogailuen instalazioei buruz esaten dena.
- g) Gas Pasaiaren baimena.
- h) Pasaiako AASSen 175 artikularen arabera, finka bakoitzaren hargune nagusitik kontsumitzeko lekuetaraino gorako kanalizazio bertikalak barru aldeko patioetatik joango dira beti edota kondukzio-kaxatik (aireztatua eta sarbideduna); kanpoaldeko fatxadatik oso disimulatua geratzen bada bakarriik izango da onartua (esekitokien barrutik, sareta barrutik kaxa aireztatutik ea. edo fatxadaren konposizio arkitektonikoaren barruan ongi egokituko den soluzioren baten bidez).
- i) Presioaren kaxa erregulatzailerak begi-inpaktu gutxien izango duten horma-ataletan jarriko dira.
- j) Aukeratutako fatxadan ahalik eta modurik ezkutuen erabiliko da.

BIGARREN.- Interesdunari akordio hau jakinaraztea eta honen aurkako errekurtsoen berri ematea.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Udal Kontuhartzaitzari ematea dagozkion tasak eta zergak likidatzeko.

Lizentzia honetako lanen aurrekontua 3.606 eurokoa da eta eraikinaren elementu erkideei dagokie.



8.- 2004ko otsailaren 3ko hainbat akordiotan akatsak zuzentzea.

A) Akordioa zuzentzea. Euskadi Etorbidea 25-25 bis zk.etako jabekideak.

Tokiko Gobernu Batzardeak 2004ko otsailaren 3an egin zuen batzarrean, besteak beste, erabaki zuen Jose Manuel Abal Portelari, Euskadi Etorbidea, 25-25 bis-zk.etako jabekideen izenean, obra-lizentzia ematea eraikinean gas-instalazioa jartzeko.

Akordio horrek ez du jasotzen egingo den obraren aurrekontua.

Udal aparejadoreak martxoaren 16an txostena egin zuen eta bertan ondokoa adierazi zuen: lizentzia horretako lanak egiteko aurrekontua 15.552 eurokoa da, eta erdia (7.776 euro) eraikinaren elementu komunetarako da.

Horiek horrela eta kontuan hartuta Administrazioen araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 105. Artikulua, Tokiko Gobernu Batzardeak bertako zinegotzien aho batez zera

ERABAKITZEN DU

Tokiko Gobernu Batzardeak 2004ko otsailaren 3an hartutako erabakia osatzea, egin beharreko obraren aurrekontua 15.552 eurokoa dela adieraziz.

B) Akordioa zuzentzea. Instalaciones Mikel C.B. Hamarretxeta, 21

Tokiko Gobernu Batzardeak 2004ko otsailaren 3an egin zuen batzarrean, besteak beste, erabaki zuen INSTALACIONES MIKEL CB-ri obra-lizentzia ematea Hamarretxeta, 21. Zk.an dagoen eraikinean gas-instalazioa jartzeko.

Akordio horrek ez du jasotzen egingo den obraren aurrekontua.

Udal aparejadoreak martxoaren 16an txostena egin zuen eta bertan ondokoa adierazi zuen: lizentzia horretako lanak egiteko aurrekontua 8.820 eurokoa da, eta 2.800 euro eraikinaren elementu komunetarako dira.

Horiek horrela eta kontuan hartuta Administrazioen araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 105. Artikulua, Tokiko Gobernu Batzardeak bertako zinegotzien aho batez zera

ERABAKITZEN DU

Tokiko Gobernu Batzardeak 2004ko otsailaren 3an hartutako erabakia osatzea, egin beharreko obraren aurrekontua 8.820 eurokoa dela adieraziz.

9.- Obra legeztatzea: Larrabide, 13

2003ko abenduaren 22an Pilar Seminario Alonsok Jaizkibelgo Itsasalde baserrian egindako terraza-garajea lehenengoz okupatzeko lizentzia eskatu zuen; eskaerari erantsita 2003ko irailren 17an ikus-onetsitako obra amaierako dokumentazioa aurkeztu zuen.

Udal arkitektoak 2004ko urtarrilaren 26an eskaera horri buruzko txostena egin zuen eta bertan ondokoa adierazi zuen: *“Donibaneko Itsasalde baserria ikuskatzera joan ondoren, terraza eta garajearen obra amaierako eskaerari buruz aurkako iritzia ematea proposatzen dut, jabeek aurkeztutako proiektuan proposatutako mugak gainditzen dituelako eta beraz, ez dituelako AASSak betetzen.”*

Lizentzia honi buruzko erabakia hartzeko organu eskuduna, espedientean txosten erabakigarria aldekoa ez denean, Tokiko Gobernu Batzordea da. Hori guztia 2003ko ekainaren 19ko Alkatearen ahalmenak eskuordetzeko Ebazpenak xedatzen duenari jarraituz. Hori dela eta, bertako zinegotzien aho batez zera

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- PILAR SEMINARIO ALONSO eta PATXI PEREZ CUEVASi Jaizkibelgo Itsasalde baserrian egindako terraza-garajea lehenengoz erabiltzeko lizentzia ukatzea, obrak 2001eko azaroaren 15ean emandako udal lizentziaren arabera egin ez direlako; izan ere, baimendutakoa baino azalera handiagoa eraiki dute eta ez dute errespetatu bidearen mugarekiko 4 m-ko distantzia.

BIGARRENA.- Lurzoruaren Legearen Testu Bateginaren 184. artikulua arabera, BI HILABETEKO EPE barruan, jakinarazpen hau jasotzen dutenetik kontaktzen hasita, obra hau emandako lizentziaren arabera egokitu behar dute; hori egin ezean, obrak eraitsi egingo dira euren kontura eta erabilerak behin betiko galaraziko dira.

HIRUGARRENA.- Akordio hau interesatuei jakinaraztea eta honen aurkako errekursoen berri ematea.

10.- Zigor espedienteak irekitzea.

Espediente hauek babestu behar diren datu pertsonalak dituzte.

Eta aztertzeko beste gairik ezean amaitutzat eman da batzarraldia 11:00etan, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau andre Alkateak eta nik, Idazkari Akzidental bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.

